



# HEDABIDE TXIKIAK ERE, BAGARA



Alazne Aiestaran



euskarazko **kazetaritzaren** I. kongresua

## 1.- ATARIKOA

Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresua den honetan parte hartzeko gonbita egin zidatenean, harritu egin nintzen eta apur bat beldurtu ere bai. *Drogetenitturri* bezalako herri-aldizkari txiki eta xume baten izenean, nik zein ekarpen egiteko neukan zalantzan jarri nuen. *Drogetenitturri* ez baita herri aldizkarien eredu eta erreferente, bai ordea, tokian tokiko prentsaren errealitatearen zati bat.

Lehenengo eta behin argi utzi nahi dut, nire ibilbidea Ermuko herri aldizkarian nahiko motza dela, 2000. urtean hasi nintzelako koordinatzaile bezala lanean bertan, nahiz eta aurretik kolaborazio lanak egin izan nituen. Hala ere, proiektua gauzatu zenean ni ez nintzen lekuko izan eta, zalantzarik gabe, orduko lan taldeak borondatez egin zuen lan izugarriak aipamen berezia merezi du. Lehenengo kide haiek jarri zuten martxan *Drogetenitturri* duela 10 urte, eta horien ostean izan diren guztien lanari esker, iraun du gaur egun arte bizirik aldizkariak. Beraz, 4 urte hauetan ikusi eta ikasi dudanaren ekarpena egiteko asmoarekin idatzi ditut hurrengo lerroak.

## 2.- Aldizkariaren hastapenak

*Drogetenitturri* Ermua eta Mallabiko herri aldizkaria da. 1990ean lehenengo alea kaleratu zen. Hasieran aldizkaria saldu egiten zen eta bi hilean behin kaleratzen zen. Orduan ez zegoen langilerik eta *Drogetenitturri* egiten zuen lan talde osoa borondatez aritzen zen. Proiektua erabat militante jaio zen, gertuko informazioa eskainiz euskara gure herrietan zabaldu eta sustatzeko asmoz. 1992an kaleratzeari utzi eta hausnarketa sakona egin ondoren, aldizkaria ganoraz egiteko, profesional baten beharra zegoela konturatu ziren eta aldizkariaren pisu handiena kazetari-maketatzailea zen langile finko baten esku lagatzea erabaki zen. Horrez gain, kolaboratzaile sarea izango zuen ondoan eta publizitate

lanetan arituko ziren bi lagun. Horrela, 1994an hilabetero kaleratzen hasi zen berriz, gaur egun arte.

### 3.- Gaur egungo aldizkaria

*Drogetenitturrik*, beste herri aldizkari askok bezala, Euskara Elkarte edo Kultur Elkarte bat du atzean. Gurean, Euskal Birusa Elkarte Kulturalak kaleratzen du eta berau Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioko bazkidea da. Aldizkaria, gaur egun ere hilabetekaria da, 1.650 aleko tirada dauka eta doan banatzen da Ermuan eta Mallabian. Batez beste 24-28 orrialdeko aldizkaria egiten dugu. Barruko orriak zuri-beltzean eta azala eta kontraazala bi tintatan izan da uztaile arte. Irailean azalean eta kontraazalean kolorea sartzea erabaki genuen. Urtean 11 ale kaleratzen ditugu eta Udal hauteskundeetan lau orrialdeko ale berezia. Gaur egun ere, gure herrietako berriak emanez, euskararen normalizazioan eragitea dugu helburu. Azken 10 urteetan egindako lanari esker, herritar asko euskaraz irakurtzen jarri baditugu ere, oraindik handia da egiteko dagoen lana.

### 4.- Ermua eta Mallabiko datu batzuk

Ondoko datuek, 2 urte eta gehiagoko biztanleria, lurralde-eremuen arabera sailkatuta, euskara-maila globalaren jakintza maila erakusten dute. Iturria [www.eustat.es](http://www.eustat.es) (2001. urtekoak).

	Guzti ra bizta nleak	Euskaldunak				Ia euskaldunak Erdaldunak	
		Guzti ra	Alfabetat uak	Erdizka alfabetat uak	Alfabetatugab eak	Guztira	Guztira
Ermua	16.379	<u>3.988</u>	3.157	667	164	<u>4.064</u>	<u>8.327</u>
Malla	1.089	803	663	123	17	139	147

bia							
-----	--	--	--	--	--	--	--

## 5.- Lan taldea

Aldizkariaren lan taldea 5 pertsonen osatzen dute eta kontratupeko langile bakarra dago, egunean 4 orduz aritzen dena eta hilero ia 400 euroko soldata jasotzen duena (14 hilabetez). Soldata horri, Gizarte Segurantzako gastuak gehitu behar zaizkio. Bestalde, hilabetean behin aldizkaria maketatzeaz arduratzen den diseinugilea dago. Honek, ia 200 euro jasotzen ditu hilabetero baina ez dauka lan kontraturik. Hilabetean behin asteburu batean (larunbat eta igandean) maketazio lanak egiten ditu. Publizistak hilabetero fakturatzen den diruaren %30eko komisioa jasotzen du eta ez dauka soldata finkorik.

Formazioari dagokionez, lan taldean kazetari bakarra dago. Erredakzio taldeko gainontzekoek erredakzio lanak borondatez egiten dituzte; guztiak tituludunak diren arren, ez dago kazetaritzan lizentziaturik. Lan taldean, aritu izan dira kazetaritza ikasi dutenak ere, kolaborazio lanak egiten baina beste lan batzuk direlako edo nekatu direlako, utzi egin dute.

Bestalde, 7-8 laguneko kolaboratzaile talde bat daukagu eta bakoitzak hilero aldizkariko atalen bat idazten du borondatez. Azkenik, bi banatzaile daude aldizkaria Ermua eta Mallabian banatzen dutenak.

## 6.- Azpiegitura

2001. urtetik Euskal Birusa Elkarte Kulturalarekin erdibana daukagu egoitza alokairuan. Ordura arte, Euskal Biruseko bazkide batek utzitako lokal batean aritzen ginen ahal bezala, eta azpiegitura egokirik gabe. Ermuko Udalak duela 7 urte herriko beste hainbat talderi bezala, Udalarena den eraikin batean egoitza eskaini zigun baina ez zituen beharrezko baldintzak betetzen eta bazkideak

utzitako lokalean aritzen ginen. Gaur egungo egoitzan, autoediziorako tresneria guztia daukagu, kamera digitala, telefonoa eta Interneteko sarea.

## **7.- Finantzaketa**

Gurean, beste hainbat herri aldizkariren kasuan bezala, dirulaguntza ofizialak eta publizitatea dira diru iturri nagusiak. Alde batetik Ermuko eta Mallabiko udalek ematen dizkiguten dirulaguntzak, bestalde Eusko Jaurlaritzako dirulaguntzak eta Bizkaiko Foru Aldundikoak. Publizitateari dagokionez, dirulaguntza ofizialak jasotzeko eskatzen diren baldintzen mugan gaudela esan beharra dago. Alegia, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak ematen dituzten dirulaguntzak jasotzeko baldintzen artean, gutxienez, %35eko auto-finantzaketa izatea beharrezkoa da. *Drogeteniturri* ozta-ozta heltzen da kopuru horretara. Jakina da, oro har, euskarazko prentsak zailtasunak dituela publizitatea lortzeko eta saltzeko. Horren erakusle, orain arte egin diren mahai-inguru, jardunaldi eta hitzaldiak euskarazko publizitatearen inguruan<sup>1</sup>.

Norbaitek gure edozein ale hartuko balu ez luke hori pentsatuko, lehen begiratu batean barruko orrietan publizitate dezente agertzen delako, ulergarria da ordea, gure publizitate tarifak duela 10 urteko berberak dira-eta. Gaur egun oraindik asko dira gurean hilean behin publizitatea laguntza gisa sartzen duten bezeroak, euskararen aldeko militante direlako eta ez ordea, interes komertzial hutsagatik. Batez ere, hilero publizitate bezero finkoak direnak. Izan ere publizitate neurri txikiak erosten dituzte. Neurri handiak eta kolorean erosten dituen bezero gutxi dago herrian. Maiz, inguruko herrietako (Eibar, Elgoibar) bezeroek erosten dituzte. Beti pentsatu izan dut eta batez ere publizista lana egiten dudanetik,

---

<sup>1</sup> Arkok Arrasaten antolatutako Prentsa lokalari buruzko 1., 2. eta 3. jardunaldiak, 1991an, 1993an eta 1999an hurrenez hurren. 2003ko urtarrilaren 17an, Eusko Ikaskuntzak eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak antolatutako Publizitatea eta herri komunikabideak jardunaldiak. 2003ko azaroaren 28an eta 29an Zamudioko

euskaraz aritzen garelako zailtasun gehiago ditugula herrian publizitatea saltzeko, eta horrek ere izango du eragina neurri batean baina, duela 4 urte Ermuko Telebistan (gaur egun desagertua) ari nintzenean lanean, publizistak zailtasun handiak zituen publizitatea lortzeko eta hura gaztelerazko telebista zen.

Zoritzarrez, Ermuan eta Mallabian gure hilabetekaria ez da publizitatean erreferente baina prestigioa omen dugu. Horrela diote, 2004an LKS ikerketa enpresak Ermuko Udalak eskatuta, Ermuan egoera soziolinguistikoa aztertzeko egindako ikerketaren datuek. Euskal Birusak eta *Drogetenitturrik* prestigioa dute eta erreferente dira Ermuan, baita biztanle erdal hiztunen artean ere<sup>2</sup>.

## 8.- ONDORIOAK

Horrela ateratzen dugu hileroko-hileroko gure produktua gure herrietako (Ermua eta Mallabia) etxe eta kaleetara. Ez gara erabat profesionalak eta argi dago beste herri komunikabide askoren ondoan gure aldizkariak ez duela maila bera izango eta asko dugula ikasteko oraindik, baina gure neurrira kaleratzen dugun produktu duina egiten saiatzen gara. Eta hor dago, 10 urtean kaleratzen dugun produktu duina egiten saiatzen gara. Eta hor dago, 10 urtean kaleratzen dugun produktu duina egiten saiatzen gara. Eta hor dago, 10 urtean kaleratzen dugun produktu duina egiten saiatzen gara.

Orain zalantzarik gabe ez gaude baldintza onenetan. *Drogetenitturrik* eskaintzen duen soldatatxoarekin zaila da gaur egun bizitzea. Ezin da ahaztu ordea, garai txarragoak ere izan direla (ganorazko egoitzarik gabe, autoediziorako tresnarik gabe, lan kontraturik gabe...). Gurean ere egon da bilakaera, ez beste herri komunikabide batzuetan egon den bilakaera, baina hasierako urteetatik gauzak hobetu dira, nahiz eta oraindik ere badagoen zer hobetu zalantzarik gabe.

Herri aldizkarietako kazetari euskaldunaren lan egoera azaltzeko ponentzia prestatzeko eskatu zidaten antolatzaileek eta gure errealitatearen isla dena azaltzen saiatu naiz. Gu ez gara eredu

herri aldizkarien panorama orokorrean. Baina nor da bada eredu edo erreferente? *Arrasate Press?*, *Ttipi Ttapa?*, *UK?*... 90eko hamarkadaren hasieran *Arrasate Press* ezagun egin zen Euskal Herri osoan eta haren eredu jarraituz, makina bat izan ziren herrietan eta batez ere Gipuzkoan sortu ziren herri aldizkariak. Gerora Bizkaian ere sortu ziren. Iparraldean eta Araban ordea, herri aldizkari gutxiago sortu dira. Formula egokia zen baina bakoitzak bere herri eta errealtatera moldatu behar izan zuen. Gurean hasieran ez zen agian ongi planteatu, arestian esan bezala, egitasmoa erabat militante jaio baitzen eta jakin badakigu, borondatezko lana lagungarri izan behar dela eta ez egitasmoaren zutabe nagusia. Asier Arangurennek bere tesian bildu zituen proposamen artean, honako hauek gogora ekarriko ditut:

- ✍ “Enpresa egitura landu behar da lehiakortasunean aritzeko. Kontabilitatea profesionalen eskuetan utzi beharra dago eta auto-finantziazio bideak urrunago eramán”. (Aranguren, 1999a: 227).
- ✍ “Borondatezko lanak, nire ustez, lagungarri izan behar du, baina inoiz ez komunikabidearen zutabe nagusia”. (Aranguren, 1999a: 228).
- ✍ “Lantaldeek profesionalak behar dute izan eta horretarako, onenak bertan egoteko, lan-kondizio duinak eskaini behar dira. Hasiera batean, orain hamar urte, langile ia denak ziren gazteak honelako proiektuetan baina, jakina, hor jarraitzen dutenek hamar urte gehiago dituzte eta normalean baita beste erantzukizun batzuk ere”. (Aranguren, 1999a: 228).

Zorionez, herri aldizkari gehienen egoera ez da gurea bezain prekariora baina ez gara egoera horretan gauden bakarrak, gu baino okerrago daudenak ere badira eta azken finean, herri aldizkarien panorama anitz eta askotarikoa osatzen dugunon artean, gu ere

---

<sup>2</sup> LKS. Ermuan egoera Soziolinguistikoa aztertertzeko lan mailetan ateratako behin-behineko ondorioak. 2004.

bagaude eta bagara errealitatearen zati bat. Gure aldizkariak, ahalik eta txukunen ateratzeko lanean ari garenak alegia. Beharbada hori izan da gurean orain arte bizirauteko modu bakarra. Bestalde, ezin da ahaztu, proiektu bakoitzak bere jaiotza prozesua eta bere bilakaera daukala, bidean hainbat faktore eta baldintza lagun edo arerio izanik.

Dena den, onartzen dut gurean ez direla urteetan gauzak modu profesionalean egin eta ondorioz, ez dela lan talde sendoa eratzerik lortu eta gaur egungo gure egoera, horren guztiaren isla eta ondorioa izatea. Hala ere, azken 2 edo 3 urteetako bilakaera, aurreko urteetako baino azkarragoa eta handiagoa izan dela ere onartu behar da. Horretan zalantzarik gabe ondoan, eskarmentu handia duen herri aldizkaria izatea lagungarria izan da guretzat azken urteetan. Eibarko ...*eta kitto!* astekariaz ari naiz. Arestian aipatu bezala, bertako langile bat da gurean diseinu lanetan dabilena hilean behin 2000ko irailetik. Ondorioz, bi herrien arteko harremana sendotu egin da eta elkarlana indartu. Aholkuak jasotzeko erreferentzia garrantzitsua izan da eta egoera zailetan lagungarri oso.

## **9.- Aurrera begira**

Orain artekoa ikusita, badugu etorkizuna itxaropenez begiratzeko arrazoirik. Izan ere, bailarako multimedia egitasmoa lantzen ari gara, Deba Barreneko gainontzeko Euskara Elkarteekin batera.

Deba Barrena, 8 herrik osatzen dute: Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar, Eibar, Soraluze eta Bizkaikoak diren Ermuak eta Mallabiak. Bailara osoan 6 euskara elkarte daude eta gaur egun, euskara elkarte bakoitzak herri aldizkari bat kaleratzen du: *Kalaputxi* hilabetekaria Mutrikun, *Berriketan* hilabetekaria Deban, *Barren* astekaria Elgoibar eta Mendaron, *Pil-pilean* hamaboskaria Soraluzen, ...*eta kitto!* astekaria Eibarren eta *Drogetenitturri* hilabetekaria Ermua eta Mallabian.



Deba Barreneko 6 euskara elkarteek, Deba arroko beste aldean, Deba Goienean alegia, 2000. urtean eman zen bateratze prozesua ikusita eta etorkizunari begira gure artean zegoen ardurak bultzatuta, 2003ko maiatzean bailarako 6 euskara elkarteak bilera bat egin eta herri aldizkari ezberdinen bateratze prozesua emateko lehen urratsak adosten hasi ginen. Bailara osoan zabalduko litzatekeen astekari bat kaleratzeko bideragarritasun plana egiteko erabakia hartu eta 2003ko irailean prestatzen hasi ginen. Eskualdeko astekariak gehitu egingo luke gaur egun herriz herri, tokiko aldizkariak duten hedapena. Egun, 6 aldizkariak tirada bakoitzeko orotara 18.100 ale botatzen dituzte eskualdean. Astekari berriak 20.000-21.000 ale kaleratuko dituela aurreikusten da eta herri guztiek astekaria jasoko luketela, beraz maiztasunean alde handia egongo litzateke, hamaboskari (*Pil-pilean*) eta hilabetekarien (*Berriketan, Kalaputxi eta Drogetenitturri*) kasuan batez ere.

Horrela bada, astekariak eduki beharko lituzkeen ezaugarriak jaso eta horrelako produktuaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzen hasi ginen. 2003ko abenduan aldizkariaren bideragarritasun plana bukatu eta ekonomikoki bideragarria litzatekeela diote datuek.

## **10.- Bailarako Telebista**

Bitartean, espero ez zen eta aprobetxatu beharreko aukera sortu zen bailaran euskara elkarteentzat. Mendaroko telebista, gaur egun Mendaron soilik ikusten dena, euskara elkarteen eskutik, eskualdeko telebista bilakatzeko aukera sortu zen. 2003ko abenduan hasi ziren lehen harremanak Mendaroko Udalarekin eta Udalaren jarrera proiektuaren aldekoa izan da beti. Mahai gainean aukera hau izanda, gure plangintza moldatu behar izan dugu eta 2004. urtean lehentasuna eman zaio telebistari. Beraz, bideragarritasuna aztertu da, dirulaguntzak kudeatu dira, udaletan bilerak egiten ari dira eta egitasmoa Debabarreneko Garapen Ekonomiarako Elkartearen den

DEBEGESari aurkeztu zaio. Bertan, Debabarrena osatzen duten 8 herriak eta bertoko alkateak ordezkaturuta daude.

## **11.- Internet**

Honekin batera, multimedia egitasmoa osatzeko, Internet arloa lantzen ari gara. Hau da, eskualdeko atari digitala martxan jartzeko bideragarritasun plana egiten ari gara. DEBEGESak aurrera begira, Deba Digitala proiektua garatu nahi du eskualdean eta euskara elkartearen egitasmo multimedia bete-betean sartuko litzateke bertan.

Proiektua martxan dago jada. Hurrengo hilabeteetan, Telebista eta Internet arloa garatuko dira. Izan ere, 2004. urte bukaerarako biak martxan egotea aurreikusten da. Horrez gain, egitura juridikoa aztertzen, irudi korporatiboa prestatzen, dirulaguntzak kudeatzen eta bailarako udalekin bilerak egiten ari gara.

Telebista berrikuntza da elkarte guztietan. Gaur egun ez baitago eskualde honetan telebista kudeatzen duen euskara elkarterik. Internet arloan aldiz, Eibarko *Eta kitto!* eta Elgoibarko *Barren* ditugu aurreratuenak. Gainontzeko aldizkariak ez dute edizio elektronikorik ezta web orrialderik ere ez.

Beraz herri aldizkariak dira, bailarako elkarte guztiek komunean duten produktua. Bateratze prozesua berez, eskualdeko astekaria sortzeko asmoarekin hasi zen, nahiz eta tartean telebista eta Internet garatzeko aukera agertu den eta horri eman zaion lehentasuna 2004. urtean. Hala ere, eskualdeko astekaria sortzeko bideragarritasuna eginda dago eta talde multimediarren hirugarren hanka, idatzizko prentsa izango dela aurreikusten da.

Idoia Camachok, bere tesian jasotzen du herri aldizkariaren etorkizuna, bailaraka antolatzean egongo litzatekeela, une honetan esparru horretan dauden interesari aurre egin ahal izateko. "Goienak eman duen urratsa etorkizunean tokian tokiko hedabideek eman beharreko pausoa da, informazio lokalaren esparruan sartzen ari diren interes ugariari aurre egin ahal izateko. Aldizkariak eskualdeka

antolatu eta landu behar dira, euren egiturak sendotuz biztanle eta merkatu kopuru handiagoari egokiago erantzuteko. Herri hedabideak eskualdeetako enpresa multimedia modernoetan bildu behar dira eta hurreko komunikazioaren esparru guztiak profesionaltasunez landu, elkarrekin lan egitearen ondorioz sortzen diren sinergiak aprobetxatzeko". (Camacho Idoia, 2001: 336).

Guk ere asmo horrekin egin nahi dugu aurrera eta batez ere *Drogetenitturri* kaleratzen dugun lan taldeak argi ikusten dugulako etorkizunean askoz errazagoa egingo zaigula bidea gure ingurukoekin bilduta egitea, orain arte bezala baino. Erronka handia da eta egiteko dagoen lana ere bai, batez ere hasieran, ez baitira hasierak errazak izaten. Hala ere, hoberako bada, gure aldetik daukagun guztia jarriko dugu egitasmoak aurrera egin dezan.

Bukatzeko pare bat ideia azpimarratzea gustatuko litzaidake:

Alde batetik, herri aldizkarien eredu ez bagara ere, euskarazko aldizkari txikiak bagara, gure txikitasunean, duintasunez eta poliki, lanean dihardugu gure proiektuak, gure erritmora, hobetzen saiatuz. Ez da erraza ordea, zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta militantzia handiagoa, soldatak eskasagoak, baliabide gutxiago lan egiteko... Luis Fernandezek *Euskaldunon Egunkarian* ari zenean, "*Euskal Kazetarian Profila*" izeneko artikuluan horrela zioen: "(...) kiroltasunez, espiritu olinpikoz, jasotzen ditugu gure soldatak" (Fernandez, 1996: 61). Batzuk, herri aldizkarien urrezko aroa deitu zuten garai horretan ez genituen gauza asko alde izan eta ilusioa eta itxaropena lagun, erabat militanteak ziren proiektuak bultzatu genituen eta gaur egun, egiten dugun horretan sinestea da agian bizirik irauteko modu bakarra. Ez dakit horrela izan behar duen, modu bakarra hori den, baina gurean behintzat horrela da, horrela egin dugu aurrera. Garai latzagoak ere pasa ditugu, 1999an aldizkaria noraezean egon zen desagertzean.

Profesionalak ez bagara ere, horrek ez du derrigorrean esan nahi gauzak ganorarik gabe egiten direnik. Guztiak izan gara txiki eta gaur egun, batzuk baliabide gehiagorekin, soldata hobeagoekin,

kalitate handiagorekin, baina euskaraz ari garen guztiok txiki gara gaztelerazko edozein hedabideren aurrean. Beraz, gure etorkizuna, hainbeste aipatzen den elkarlana eta sinergiak batzean dagoela argi ikusten badugu, norbera bere zilberrari begira egon beharrean pentsa dezagun zabaltasunez, egin ditzagun benetako urratsak elkarlana gauzatzeko. Galduko dugu gurea den zerbait, baina guztiontzat mesedagarria izango den asko irabaziko dugula ziur nago.

## **BIBLIOGRAFIA**

Aranguren, Asier. 1999a. *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian doktorego tesia*. Leioa. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Aranguren, Asier. 1999b. "Gutxi baina onenak". *EuskoNews & Media*. 26.zenbakia. Donostia. Eusko Ikaskuntza.

Aranzabal, Joxe. 1999. "Euskarazko herri prentsaren bilakaera". *EuskoNews & Media*. 26.zenbakia. Donostia. Eusko Ikaskuntza.

Arregi, Inaxio. 2003. "Goiena Komunikazio Zerbitzuak 2000-2003". *Tokiko Hedabideak etorkizunari begira III. Jardunaldiak*. Abadiño. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa.

Camacho, Idoia. 1999. "Euskarazko herri aldizkariak eta teknologia berriak". *Uztaro*, 1999, 31.zenbakia, 85-100.

Camacho Idoia. 2001. *Herri aldizkariaren funtzioa euskara normaltzeko prozesuan (1989-1999) argitaratu gabeko doktorego tesia*. Leioa. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Camacho, Idoia. 2002. "Euskarazko herri-aldizkariaren funtzioak hirugarren milurtekoaren atarian". *Uztaro*, 2002, 43.zenbakia, 67-85.

Fernandez, Luis. 1996. "Euskal kazetariaren profila". *Jakin* 1996. 96.zenbakia, 51-62.